

SOPELA KOSTA FEST JAIALDIKO FILM LABURREN V. LEHIAKETA

OINARRIAK

Lehiaketa hau Sopela Kosta Fest 2017 jaialdiko programazioaren barruan antolatu dago eta bere helburua da surfaren unibertsoa sustatzea.

BALDINTZAK

Gehienez 30 minutuko iraupena duten film laburrak bakarrik onartuko dira, eta ezinbestekoa da gaia surfaren munduaren ingurukoa izatea. Filmak edozein generotakoak izan daitezke, fikziotik dokumentalera, eta kategoria batekoak bakarrik izango dira.

Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete lehiaketa honetara, beraz, ez dago mugarik kopuruari dagokionez.

Film laburrean elkarrizketak badaude eta euskaraz edo gaztelaniaz ez badira, egileak azpigituluak jartzea gomendatzen da, bi hizkuntza horietako edozeinetan.

Aurkeztutako lan guztiek 2017ko urtarrilaren 1a baino geroagoak izan behar dute, eta berdin dio aurretik jendaurrean erakutsi badira edo beste lehiaketa batzuetan parte hartu badute. Ez dira onartuak izango lehiaketa honetan 2017ko edizioan aurkeztutako lanak.

Proposamenek jatorrizkoak izan behar dute, hau da, ezin dira plagioak izan edo hirugarren bati usurpatutakoak. Susmorik balego, jabetza egiaztatzeko frogak eskatuko dira.

Egilea lanaren erreprodukzio-eskubide guztia jabea eta erantzulea izango da, beraz, lehiaketaren antolatzaileek ez dute horretan inolako erantzukizunik izango.

Musika edota irudiak erabiltzen badira, egile-eskubiderik ez dutenak (copyleft lizentzia dutenak edo norberak sortutakoak) erabiltzea gomendatzen da. Egile-eskubideak dituzten abestiak edo irudiak erabiltzen badira, parte-hartzaileak bere gain hartuko du bideoa igotzen den plataformak edo egile-eskubideak dituenak bideo horren aurkako neurriak hartzeko arriskua. Halaber, nola edo hala jabetza intelektualaren araudia urratzen ari dela egiaztatuko balitz, antolatzaileak lan hori lehiaketatik kanpo uzteko aukera izango du.

Aurkeztutako lan guztiek ez dute hizkera sexistarik erabiliko jarreretan eta irudietan, ezta jarrera homofobo edo sexistarik ere. Emakume eta gizonen arten berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki, aurkeztutako lan osoan hizkera sexistarik ez dela erabiliko bermatuko da. Aipatutako legearen babespean, aurkeztutako ekoizpen-lanetan, pertsonak ez dira beren sexuaren arabera giza duintasun maila handiagoan edo txikiagoan agertuko, ez da inor objektu sexual gisa agertuko, estereotipo sexistak saihestuko dira eta sexu, rol eta genero-nortasun aniztasuna sustatuko da.

IZEN-EMATEAK

Lehiaketa honetan parte hartzeko www.sopelakostafest.com web-orrian eman behar da izena. Horrez gain, film laburra jarri den plataformaren esteka ere adierazi beharko da (YouTube, Vimeo, eta abar).

Izena emateko azken eguna 2018ko irailaren 2a izango da.

Izen-ematea doakoa da.

SARIAK

Surfaren eta ikus-entzunezkoen munduan jarduten duten pertsoez osatutako epaimahai batek aukeratuko ditu finalerako lanak eta hiru lan irabazleak. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da. Horrez gain, sariren bat esleitu gabe uzteko eskubidea izango du.

Botoak matean, kalitate teknikoa, sentikortasun artistikoa, sormena eta gaitasun narratiboa kontuan hartuko dira. Epaimahaiaren erabakiak, behin betiko erabakia barne, gehiengo soilaz hartuko dira.

- SOPELA KOSTA FEST saria, film laburrik onenari: 500 € eskudirutan.
- BERTON saria, Euskal Herriko parte hartzaileek egindako film laburrik onenari (7 probintziak): 250 € eskudirutan.
- TAULA LILA saria, emakume batek edo emakume batek baino gehiagok egindako film laburrik onenari, emakumeak surfaren munduaren inguruan jarrera aktiboan agertu eta betiko genero-estereotipoak apurtzen dituen film labur onenari (gizonezkoek egina izan daiteke): 250 € eskudirutan.
- SOPELAKO EGILEAK Sari-Aipamena, Sopelan erroldatutako egileei zuzendua: 125 €
- EUSKARAZ BLAI Sari-Aipamena, euskera hutsean egindako lanei zuzendua: 125 €

Aurkeztutako lanek ezin izango dituzte 2 sari eta sari-aipamen bat baino gehiago jaso era berean.

Zer film laburrak irabazi duen 2018ko irailaren 20an jakinaraziko dute, Sopela Kosta Fest jaialdiaren barruan egingo den ekitaldian. Hor, sariak banatzeaz gain, aipatutako lanak ere emango dira. Gero, irabazi duten film laburrak www.sopelakostafest.com web-orrian argitaratuko dituzte.

KONTUAN HARTZEKOA

Sopelako Udalak lehiaketa honetarako aurkeztutako film labur guztiak Kurtzio Kultur Etxean emateko eskubidea izango du, saio batean edo bitan, lehiaketa amaitu eta hurrengo egunetan. Era berean, Sopelako Udalak lehiaketara aurkeztutako film laburren irudi batzuk, jaialdiarekin zerikusia duten gizarte-sareetan edota web-orrietan erabiltzeko eskubidea ere badu, lehiaketa eta horren barruan antolatutako jarduerak sustatzeko helburuarekin.

Irabazten duten film laburren eta Kurtzio Kultur Etxean emateko aukeratutako egileek fitxategi digital batean bidali beharko dute beraien lana (pendrive batean edo Wetransfer, mezu elektronikoa edo antzekoaren bidez, HD(1280x720)/Full-HD(1920x1080) bereizmenarekin ahal izanez gero, eta mp4 formatuan). Antolatzaileek, irekitzeko zailtasunak izan badituzte, formatua aldatzea eskatzeko eskubidea izango dute. Hala ere, nahikoa aurrerapenarekin jakinaraziko die egileei hala egiten badu.

INFORMAZIO GEHIAGO

Kurtzio Kultur Etxea
94 406 55 05

sopelakostafest@sopela.eus

www.sopelakostafest.com